

Sorginak

Zeruko Argia, [1976].

Gure errian, sorginak ez dira gaurkoak.

Atzoko sorginak, egiten zituzten kalteak, eta gaurkoak ere bai; atzoko sorginak, izkutu-ixilekoak izaten ziran, eta gaurkoak ere bai; atzoko sorginak, irudimenean sartuak ziran asko, eta gaurkoak ere bai.

Hala ere, Delancre-k atzo erre arazi zituen gure sorginak aragizkoak ziren, eta gaur akabatzen eta espetxeratzen dizkiguten sorginak ere bai. Hoiek ez dira guk ikusten ditugun sorginak, gainontzekoak ikusten dizkiguten sorginkeriak baizik; guda garaiean guri izatzak ikusten zizkiguten sorginkerien neurri berean.

Gure sorginak, guk ikusten ditugunak edo guri izkutatzen zaizkigunak ere sorginak dira, eta batzuk betiko ilak dira. Hala ere, ba dira guk ikusten ez ditugunak, edo ikusita ere oraindik arrapatu ezin ditugunak, eta Delancre-ren justizia ezik, beste Justiziak epaitu behar dituenak.

Baina bai gureak, bai besteenak, sorginak ez dira beti aragizko sorginak. Irudizkoak ere ba dira.

Nik beldur gehien dieten sorginek hoiek dira: irudimenak non nahi sor arazten dizkigun asmo beldurtiak. Beti ezin gera buruan sorginak ditugula bizi.

Ba liteke sorgin hoiek egitazkoak izatea, eta, kasu!

Baina nahiago dut sorginen bildurraz bildurrik ilda geratu baino, dena sorgina ez delako konfiantza hontan egin behar ditugun lan-bideetan jarri.

Nahiago dut eunetik bein edo amar aldiz, sorginen kaltean erori, eun aldiz sorgin-beldurrez ezer egin gabe geratu baino.

Geldi-ixil-mutu-gorputz geratzen bagera, sorginak irabazi bait dute!